

UNEORO HASTEN DELAKO

HASIERAK

Gauari segika eguna,
argiaren ostean iluna.
Goizeko urdinak gaueko beltzari egiten dio harrera,
beltza urdinarekin nahasteko gero.

Bide baten bukaera
beste baten abiapuntua baino ez da.
Zurrumbilo horretatik ez dago irteterik;
irteten zarenean sartzen zarelako, eta
sartzen zarenean irteten.

Amaiera guztiak hasierak dira,
hasiera guztiak amaierak.

ZULORIK ZULO

Kostata lortu nuen hanka bat bestearen atzetik bota
eta tipi-tapa hastea.
Mingaina dantzaria izateak ez zien larregi lagundu
hankatxo motelei.
Zuloetan eroriko nintzen amaren beldurrek ere

eragingo zuten ziurrenik.

Eta mamu horietatik ihesi, amaren beso indartsuek

jasotzen ninduten lurretik,

bere bular epelaren babesean egin nezan bidaia.

Ordutik hona zenbatetan erori ote izan naiz?

Zenbat zulo ezagutu ditut?

Kontuak galdu nituen, aspaldi.

Behar baino gehiagotan, akaso;

uste baino gutxiagotan, beharbada.

Kostata jakin izan dut posible dela zuloetatik irtetea,

beldurrak gainditzea,

zauriak sendatzea,

minak arintzea,

bizipenetatik ikastea,

berriz ere hasieratik hastea.

Kostata lortu nuen, tipi-tapa, pausu bat bestearen atzetik bota

eta aurrera egitea;

kostata konturatu ere

zulo bakoitzetik irteteko heldulekua zu zinela, ama;

beldurrez baino indar handiagoaz eusten ninduzuna.

BIDEARI JARRAIKA

Egunero-egunero joan-etorri berbera.

Goizero, ibilbide, paisaia, geltoki, helmuga bat eta bera.

Leku batean esnatu eta esnatutako tokian lokartu.

Zenbat bizitza tartetxo bere barnean.

Batzuk elkar ezagutzen,

besteak elkar agurtzen.

Zenbat negar eta zenbat barre.

Gogoeta asko eta asko,

eta milaka ikaskuntza.

Zenbat begirada elkar gurutzatzen;

zenbat beso besarkadak itxaroten.

Eguneroko egunerokotasuneko inertzia hartan murgiltzen ginen biok.

Ordu berean elkartzen ginen; ordu berean agurtzen.

Bera bidaiko gidari, ni bidaiari.

Ez genuen hitzik elkarbanatzen baina bagenuen elkarren berri.

Biok bidaide fidel eta zintzoak, ezin aurka egin markatutako bideari.

Egun ere nire ezpaineak kurbatxo bat marrazten dute bera marra zuzenari jarraika
ikusten dudak bakoitzean.

Aitortu behar dut bera ikustean, bakarrik banago, agur egiten diodala eskuarekin.

BIRSORTU

Bigarren aldiz erditu nintzenean jaio ginen zu eta ni.

Lur jarri nizun izena.

Izen laburra, gogorra, esanahi esanguratsua duena.

Nire izenak, aldiz, hizki batzuk galdu zituen;

Amaia izatetik, ama izatera pasatu nintzen:

Izena lurperatu zenidan; ez, ordea, izana.

Sekulako galera; itzelezko irabazia.

Lurrak erakartzen ninduen lehenago ere,

baina zure alboan berarekiko lotura banaezina zen;

sutsuki nengoen lotuta berarekiko, zurekiko.

Laster sustraitu ziren nire oinak eremu emankor hartan,

eta adarrak jaio nire gorputzetik.

Azkar loratu nintzen,

eta berriz ere fruitua eman.

Hirugarrenez erditu nintzenen jaio ginen zu eta ni.

Izar jarri nizun izena.

Izen laburra, gogorra, esanahi esanguratsua duena.

Nik izena galdua neukan jada, izana ere bidean;
ez, ordea, izarretatik haratago bidaiatzeko ilusioa.

AMAIERAK

Begiak itxi dituzu eta zure eskuei begira geratu naiz.

Ez naiz ausartu nire begirada zure aurpegian mantentzen.

Beldurra sentitu dut; etorriko den hutsunearen izua.

Ume sentitu naiz; umezurtz.

Zuk begiak ixtean sentitu dudan hotzikarak erditik zatitu nau;

isiltasunak gortu egin nau;

iluntasunak itsutu;

eta nire negar malkoetan ito naiz,

sabela belztu eta gogortzeraino;

beldurrak hanka eta besoak dardarka jartzeraino;

Begiak itxi dituzu eta zure eskuei begira geratu naiz.

Zer ote dute eskuek?

urteen sama, egindako lana, emandako laztanen aztarna,
sentitutako bero eta hotzen islada...

Begiak itxi dituzunean zuk,

amaiera ikusi dut nik.

Zure begien azken kliska horrekin batera

etorri zaizkit gogora erditzeak,

gogoratu ditut eguneroko bidaia errepikakorrak,

gomutatu erorketak,

eta etengabe hasi beharreko hasierak;

amaierarik gabeko hasierak.

AIAMATXO

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua